



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

1. Itsaspen laguntza-programa.....	3
2. EAeko landa- eta itsasertz-ingurunea dinamizatuko duten gizarte-ekitaldiak egiteko laguntzak	4
3. Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileentzako ostatueterako laguntzak	5
4. EMA: Emakume nekazarien eskubideak babestea, Emakume Nekazarien Estatutuaren 8/2015 Legearen esparruan	7
5. Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak	9
6. Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean	10
7. Azpisektoreetako minimis laguntza	11
8. Ekoizpen ekologikorako laguntzak	12
9. Aparteko laguntzak ardoaren sektoreari, Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren (JDKa) babespeko mahastizainei laguntzeko, Ukrainako gerratik eratorritako enpresa-etekinak murrizteagatik	13
10. Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa.....	14
11. Flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko programa	17
12. Itsasoratu programa	18
13. Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren beka.....	19
14. ONEKIN 2023 Programa - Elikaduraren eta zuraren balio-kateetan ideiak heltzeko eta digitalizazio-, berrikuntza- eta ekintzaitzeta-proiektuak definitzeko prozesuei laguntzeko laguntzak	20
15. Fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeei laguntzak 2023.....	21
16. ISV Sustapena 2023 - Mahastizaintza eta ardogintzako esku-hartze sektorialaren programa hirugarren herrialdeetan sustatzeko eta komunikatzeko laguntzak	23
17. ISV Inbertsioa 2023 - Mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzak	24
18. GASTROBIKAIN 2023.....	25
19. Errioxa JDKren esparruko ardoak destilatzeako ardogintzako sektorearentzako ezohiko laguntzak	27
20. Elikadura kateko sektoreei laguntzak, Ukrainaren inbasioak eragindako testuinguru ekonomikoak eragin handia izan baitu	28
21. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak	30
22. Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako laguntzak 2019-2020	32
23. GAUZATU INDUSTRIA programa. Laguntza itzulgarriak oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. 2023ko Ekitaldia	34
24. INDARTU Programa.....	37
25. Bideratu Berria.....	39
26. Klusterren Antolakunde Dinamizatzaileen programa	41
27. Deskarbonizazio Industrialeko Programa.....	44
28. Hazitek 2023.....	46



29. Elkartek 2023.....	49
30. Emaitek Plus 2023.....	51
31. Azpitek 2023.....	53
32. BIKAINTEK 2023.....	55
33. Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko programa	57
34. EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-laguntzak, Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko	60
35. Natura-ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak.....	62
36. Urdaibai Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak	64
37. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek egindako ingurumen-boluntariotzako proiektuetarako diru-laguntzak EAEn.....	66
38. Ekonomia zirkularreko berrikuntzarako dirulaguntzak	68



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Itsaspen laguntza-programa

2.- Araua

2012/22 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Arau arautzailea:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/03/1201055a.pdf>

Deialdia: 2023ko abuztuaren 29ko EHAA

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/08/2304063e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatu eta garatzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak ematea, biztanleen oinarrizko zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetuz eta kostaldeko herriak biziberritzen eta berritzen eta garatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen lagunduz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdia egin duen aginduaren babesean, aurkeztutako 12 eskabidetatik 7 proiekturi eman zaie aldeko ebazpena.

500.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 475.339,33 euro konprometitu ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	20	12
Lagundutako proiektuen kopurua	12	7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEko landa- eta itsasertz-ingurunea dinamizatuko duten gizarte-ekitaldiak egiteko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Honen bidez, minimis erregimenari atxikitako laguntzetarako deialdia egiten da. EAEko landa- eta itsasertz-ingurunea dinamizatuko duten gizarte-ekitaldiak egitea, 2023. urtea

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302647a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa bat da, nekazaritza-jardueratik berezita, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta itsasertz-ingurunearen eragin dinamizatzailea dakarten gizarte-ekitaldiak sustatzeko. Proiektuak baloratzeko irizpide objektiboek, ekitaldiak egiten diren eremuaren urrakortasun-/litoralitate-mailaz eta erakunde sustatzailearen esperientziaz gain, jardueraren inpaktuari buruzko irizpide batzuk jasotzen dituzte. Arreta berezia jartzen zaio xede duen publikoari, tokiko eragileen inplikazioari, eragin-eremuari, genero-ikuspegiari eta hedapen-ekintzei. Laguntza horiek emateko prozedura ondoz ondoko konkurrentziakoa da; hala, espedienteak eskabideak aurkezteko ordenaren arabera aztertu eta izapidetzen dira, eta behar bezala formulatuta eta osatuta geratzen diren neurrian eta hurrenkeran ebazten dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdia egin duen Aginduaren babesean, aurkeztutako 35 eskabideetatik 29 proiekturi eman zaie aldeko ebazpena.

200.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 144.875,88 euro konprometitu ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	50	35
Lagundutako proiektuen kopurua	45	29



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileentzako ostatuetarako laguntzak

2.- Araua

45/2020 DEKRETUA, martxoaren 24koa, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak sortzeko, egokitze edo ekipatzeko laguntzei buruzkoa.

Deialdia egiten duen agindua: AGINDUA, 2023ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuarena, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitako laguntzak emateko deialdia egiten duena 2023ko ekitaldirako, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak sortu, egokitu edo ekipatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302676a.shtml>

Ondoz ondoko konkurrentzia.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua nekazaritzako ustiategietan sasoiko zerbitzuak ematen dituzten pertsonentzako ostatuetarako laguntzen araubidea arautzea da. Sasoikako langileentzako ostatu-sarea handitzeko eta hobetzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden bitartean sasoikako langileak integratzera bideratutako ostatu-baldintza duinak bermatzeko proiektuak edo jarduerak diruz lagundu ahal izango dira. Horren barruan sar daiteke bizitoki horiek eraikitzea edo, hala badagokio, eskuratzea, eta horiek gaitzea, eraberritzea, handitzea, egokitzea, hobetzea eta ekipatzea, erregistratutako bizitoki izateko eskatzen den araudia bete ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdia egin duen Aginduaren babesean, aurreztutako 3 eskabideetatik, proiektu bati eman zaio aldeko ebazpena.

80.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 609,84 euro konprometitu ziren.

Laguntza horien aurrekontu-gauzatzearen ehunekoa ez da handia; hala ere, ukaezina da dauden ostatuak hobetzen jarraitu behar dela, eta, batez ere, plaza berriak sortzea sustatu behar dela, euskal nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak eskatzen dituen sasoiko langileen beharrak duintasunez bete



nahi badira. Helburua da sasoiko nekazaritza-lanak egiten dituzten eta ostatua behar duten pertsona guztiei ostatu emateko adina plaza egotea, eta plaza horiek guztiak erregistratuta egotea.

45/2020 Dekretuak zenbait neurri ezartzen ditu (laguntza-ehunekoa handitzea, balorazio-irizpideak egituratzea, eskatzaile motaren arabera puntuazioaren % 100 ahalbidetzeko, epea luzatzea eta banakako ebazpena), hain zuzen ere laguntza horiei harrera egitea sustatzeko eta, beraz, erregistratutako plaza-kopurua handitzeko, eskatutako plaza guztiak lortu arte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	7	3
Lagundutako proiektuen kopurua	5	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EMA: Emakume nekazarien eskubideak babestea, Emakume Nekazarien Estatutuaren 8/2015 Legearen esparruan

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 20koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuarena.

emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko 2023 laguntzetarako deialdia egiten duena. Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan. «EMA laguntzak».

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia egin duen agindua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2303091a.shtml>

Ondoz ondoko konkurrentzia.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea da, Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan. Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 8/2015 Legearen esparruan emakume nekazarien eskubideen aitortza sustatzea da laguntzen helburua.

Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearen xedea da nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa gauzatzea.

Legeak funtsezkotzat jotzen du, berdintasun-printzipio hori gauzatzeko, nekazaritza-ustiategien titulartasuna eta titulartasun partekatua (II. titulua), emakumeek nekazaritza-sektorean duten ordezkaritza (III. titulua), haien gizarte-eskubideak aitortzea (IV. titulua) eta emakume nekazariak eta haien lana aitortzea eta ikusaraztea (V. titulua).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdia egin duen aginduaren babesean, aurkeztutako 6 eskabideetatik 5 proiekturi eman zaie aldeko ebazpena.

60.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 20.524,45 euro konprometitu ziren.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Estatutuari lotutako jarduketaren kopurua	3	1
Emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako jarduketaren kop. aukerak	2	1
Ikusarazteko jarduketaren kopurua	2	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak

2.- Araua

Agindua, 2023ko apirilaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2023ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/04/2301954a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/04/2301954e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/01/2400399a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400399e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin egiten duten elkarrizketa soziala bideratzeko lanak laguntzen dira. Elkarrizketarako sortu diren foroetan gauzatzen dira lan horiek, euskal nekazaritza-sektoreari eragiten dioten gaiak lantzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Euskal Landa Garapenerako 1997-2000 Jarduera Plana onartu ondoren, eragile ekonomiko eta sozialekin hitz egiteko hainbat foro sortu dira, eta sorrera hori izaera sindikaleko nekazaritzako erakunde profesionalak laguntzeko irizpideen erreformaren baldintzapean jarri da. Erakunde horiei laguntza eman nahi zaie gizarte-elkarrizketarako eta nekazaritza-sektoreari, oro har, eta afiliatuei, bereziki, orientazioa eta aholkularitza emateko.

2023ko ekitaldian, eskaera aurkeztu dute, eta dauden 5 erakunde profesionalak buruzko espedienteak izapidetu dira; guztira, 241.000,00 €-ko laguntzak jaso dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erakundeak	5	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 6koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2023. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko labore jasangarriari laguntza emateko deialdia egiten duena. Laguntza horiek nekazaritza-azaleretan ingurumen-konpromisoak betez emango dira, 2023-2027 NPBren Plan Estrategikoaren esparruan.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302738a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302738e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hori ezarrita, neurri honen bidez labore estentsiboen dibertsifikazioa sustatzea aurkeztuko da, nekazaritza-ekoizpen iraunkorreko tekniken bidez, 2023-2027 NPBren Plan Estrategikoan onartutakoarekin eta jasotakoarekin bat etorritik. Neurriaren helburua da baliabide naturalen iraunkortasuna eta arrazoizko aprobetxamendua eta ingurunea babestea, ustategien titularren errentei eutsiz eta hobetuz

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Agindu horren bidez, laguntza-lerro horren seigarren ekitaldirako deialdia egin zen, labore estentsiboak dibertsifikatzen laguntzeko 2023. urterako. Ekitaldi horretan 106 ustategiri buruzko espedienteak izapidetu ziren, eta laguntzak 950.947,70 eurokoak izan ziren guztira. (31 sozietate, 67 gizon eta 8 emakume)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	120	106



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Azpisektoreetako minimis laguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko irailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2023rako nekazaritzaren azpisektorea dibertsifikatzeko laguntzetarako deialdia egiten duena, ekoizpenaren kalitateari edo eraldaketari lotutako berrikuntzaren eremuan, minimis laguntzen erregimenaren pean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/09/2304238a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304238e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/02/2400655a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400655e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Berrikuntzarekin eta kalitatearekin lotutako nekazaritza-nitxo berriak abian jartzea bultzatzea, euskal nekazaritza-sektorea eraldatzeko eta gaztetzeko prozesuak erraztuko dituztenak, lupulu, zereal okingarri, ahuntz-esne, boilur, zaldi endurance, oleaginoso, fruta-arbolak, olibadiak eta fruitu lehorrak (intxaurrendoa eta hurrendoa) ekoizten dituzten azpisektoreetako ustategiei lagunduz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Laguntza-ildo hori hirugarren ekitaldian aplikatu ondoren, neurri horrekin jarraitu nahi da etorkizuneko aurrekontu-ekitaldietan, sektorean sortu den interesa dela eta.

166.750,00 € bideratu dira 29 espedienteetan (4 sozietate, 18 gizon eta 7 emakume).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	40	29



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekoizpen ekologikorako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2023rako ekoizpen ekologiko ziurtaturako trantsiziorako laguntzen deialdiaren oinarriak

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302801a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302801e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/02/2400577a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400577e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hirugarren ekitaldi honetako deialdiaren bidez, gure ohiko ekoizpenaren zati bat ekoizpen ekologikorantz igarotzen lagunduko duten jarduerak garatzen lagundu nahi izan da, produkzio-ereduei aurre egin gabe, baizik eta bateragarri egin daitezten.

Lehenengo ekitaldi honetako deialdiaren bidez, gure ekoizpen konbentzionalaren zati bat ekoizpen ekologikorako trantsizioan lagunduko duten jarduerak garatzen lagundu nahi izan da, ekoizpen-ereduei aurre egin gabe, bateragarri egin baizik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Agindu horren bidez, hirugarren urtez egin da laguntza-lerro honen deialdia, 2023rako, ekoizpen ekologikorako. Nekazaritza eta abeltzaintza arloan, 27 espediente izapidetu dira ekitaldian, eta 153.391,92 €erabili dira horretarako

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	10	27



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Aparteko laguntzak ardoaren sektoreari, Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren (JDKa) babespeko mahastizainei laguntzeko, Ukrainako gerratik eratorritako enpresa-etekinak murrizteagatik

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko irailaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren (DOCa) babespeko mahastizainei laguntzeko ardoaren sektorearentzako 2023rako aparteko laguntzak onartzen dituena, Ukrainako gerrak eragindako enpresa-etekinak murrizteagatik.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/10/2304566a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/10/2304566e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekintza honen helburua Mahastien Erregistroan inskribatutako mahastizaintzan aritzen diren pertsonen eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileko titularrei laguntzeko laguntzen deialdia egitea izan da, Ukrainako gerrak ardo-merkatuan izan dituen inplikazioengatik mahats-ekoizpena murriztu izana konpentsatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Agindu horren bidez, Ukrainako gerrak eragindako inpaktua dela-eta, ekoizpena murrizteko laguntzak emateko deialdia egin zen, eta 800 onuraduni buruzko espedienteak izapidetu ziren, guztira 3.507.597,24 euroko laguntza emanez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	--	800



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko irailaren 12koa, Ekonomiaren Garapen eta Iraunkortasuneko sailburuarena.

Honen bidez, 2023rako Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Sailaren deialdiaren oinarriak onartzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza- eta akuikultura-sektorerako laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2022002984>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektoreari laguntza ekonomikoa ematea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1139 (EB) Erregelamendua, 2021eko uztailaren 7koa, Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtza (FEMPA) ezartzen duena eta 2017/1004 (EB) Erregelamendua aldatzen du. Arau-esparru horrek aukera ematen du, besteak beste, honako eremu hauetan inbertsioak egiteko:

- Arrantza jasangarria, laguntza-ildo hauekin: Arrantza-baliabideen kudeaketa jasangarria, Hondakinak biltzea arrantzaleek itsasoan eta hondartzetan parte hartuz, Arrantzaren eragina gutxitzea, Eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea gaitasuna handitu gabe, Eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea gaitasuna handituta, Motorrak ordezteko edo modernizatzea, Itsasontziko lan- eta segurtasun-baldintzak hobetzea arrantza-gaitasuna handitu gabe, Itsasontziko lan-baldintzak eta segurtasuna hobetzea edukiera handituta, Arrantzale gazteentzako hasierako laguntza, Balio erantsia, ekonomia zirkularra eta elikagaien segurtasuna, Berrikuntza, Prestakuntza, Kontrola, ikuskaritza eta behaketa, Arrantza-portuak, lehorreratze-lekuak, lonjak eta ainguralekuak.
- Ekoizpen-, merkaturatze- eta eraldaketa-planak eta -neurriak, honako laguntza-lerro hauekin: Sektorearen antolamendua hobetzea. Ekoizpen- eta merkaturatze-planak, Merkaturatzea hobetzea arrantza- eta akuikultura-produktuak sustatzeko kanpainen bidez, Merkaturatzeko eta eraldatzeko inbertsioak, Merkaturatzea sustatzea arrantza- eta akuikultura-produktuen produktuen, ontzien eta aurkezpenen kalitatearen eta balio erantsiaren esparruan.
- Berrikuntza akuikulturan, inbertsio produktiboak eta enpresak sortzea akuikulturan, Neutraltasun klimatikorako inbertsioak akuikulturan, Akuikulturak ingurumen-egoera onari eta ingurumen-zerbitzuak emateari egiten dion ekarpena, Animalien osasun- eta ongizate-neurriak, Giza kapitala eta sareko lana sustatzea, Akuikultura-ekoizpeneko eremuen potentziala handitzea, Ikerketa eta ezagutzaren hobekuntza bultzatzea, Aholkularitza espezifikoko zerbitzuak akuikultura-ustategientzat.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 149 proiektu onartu dira, eta guztira 14.369.329,68 € onartu dira. Hona hemen laguntza-lerroen araberako banakapena:

Neurria Laguntza-proiektuen kopurua

1.1.2 Arrantzaren eragina gutxitzea, 3 proiektu, 65.663,50€

1.1.3. Eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea, ahalmena handitu gabe, 9 proiektu, 731.899,50€

1.1.5. Itsasontziko lan-baldintzak eta segurtasuna hobetzea, 58 proiektu, 1.507.211,77€

1.1.8. Balio erantsia, ekonomia zirkularra eta elikagaien segurtasuna, 22 proiektu, 749.755,65€

1.1.10. Berrikuntza, 10 proiektu, 1.255.002,03€

1.1.12 Arrantza-portuak, lehorreratzeko tokiak, lonjak eta ainguralekuak, 5 proiektu, 815.308,10€

1.2.1. Motorrak, proiektu 1, 37.634,40€

1.4.1. Kontrola, ikuskapena eta betetze-maila, 20 proiektu, 39.843,75€

2.1.1. Akuikulturako innobazioa, 6 proiektu, 652.794,26€

2.2.1. Sektorearen antolamendua hobetzea. Ekoizpen- eta merkaturatze-planak, 3 proiektu, 8.283.920,98€

2.2.2. Merkaturatzea hobetzea, arrantzako eta akuikulturako produktuak sustatzeko kanpainen bidez, 2 proiektu, 36.685,70€

2.2.3. Arrantzako eta akuikulturako produktuen produktuen, ontzien eta aurkezpenen kalitatearen eta balio erantsiaren esparruan merkaturatzea sustatzea, 6 proiektu, 108.703,87€

2.2.4. Merkaturatzeko eta eraldatzeko inbertsioak, 4 proiektu, 84.906,17€

Guztira 145 proiektu, 14.058.502,18€

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1. helburua: Arrantza-flota egokitzea		
1. ekintza egitura-politika.		
2. adierazlea Itsasoan eta lurrean segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzei laguntzea (jarduketa kopurua)	20	58
2. ekintza: Ikerketa eta berrikuntza arrantza-flotaren lehiakortasunerako.		
1. adierazlea Berrikuntzako komiteak sustatzea flota jasangarritasunerantz eraldatzeko (jarduketa kopurua).	1	1
2. adierazlea I+G+B garatzea flota bideragarri eta lehiakor bat lortzeko, arrantza-praktika jasangarriekin.		
2.1. adierazlea Efizientzia energetikoa optimizatzea (jarduketa kopurua).	5	9



2.2. adierazlea Hautagarritasuna hobetzea eta inpaktua gutxitzea ingurumenean (jarduketa kopurua).	5	3
2.3. adierazlea Jardueraren eraginkortasuna hobetzea (efizientzia, segurtasuna, kalitatea, etab.) (jarduketa kopurua).	20	22
3. adierazlea Itsasoan segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzak laguntzea (jarduketa kopurua).	20	58
2. helburua: Arrantza-sektorearen lehiakortasuna handitzea.		
3. ekintza Arrantza-sektoreko marketineko baterako kanpainak nahiz kudeaketa diseinatzea eta egitea.		
1. adierazlea Euskal arrantza-produktuen ziurtagiria eta horien balioa sustatzea (jarduketa kopurua).	3	1
2. adierazlea Ziurtagiri komuna kudeatzeko proiektuak sustatzea portuetan (proiektu kopurua).	1	1
3. adierazlea Marka bat garatzen laguntzea (proiektu kopurua).	1	0
4. adierazlea Euskal arrantza-produktuen ziurtagiriak/ekoziurtagiriak sustatzea (ziurtagiri kopurua).	1	1
3. helburua: Akuikultura espezializatua eta kalitatezkoa.		
1. adierazlea Akuikulturako inbertsio produktiboak.	1	0
2. adierazlea Akuikulturaren jakintza teknikoaren eta teknologia aurreratuaren sorrera bultzatuko da, arrantzaren eta nekazaritzaren sektoreak dibertsifikatzeko.	1	3
3. adierazlea Jakintza eta neurriak garatzea, kontrol zoosanitariorako eta animalien ongizaterako.	1	1
4. adierazlea EAEko akuikulturarako espezie berrien, ekoizpeneko sistemen nahiz ekipamenduen eta akuikulturako produktuen elikadura hobetzearen inguruko ezagutza garatzea sustatzea.	1	2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko programa

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko apirilaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza-portua duen ontzidiaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko laguntzen deialdia egiten da 2023rako, Kantauri itsasoko ipar-mendebaldeko arte txikien erroldako flotaren atsedeen biologikoaren eraginpean baitaude.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2023/paralizacion-temporal-de-la-pesca-2023/web01-a2arraku/es/

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2016rako laguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko Europako Itsas eta Arrantza Funtzari buruzko 508/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) aurreikusten dira.

Arau-esparru horri esker, honako eremu hauetako neurriak babestu ahal izango dira, besteak beste: arrantza-jarduerak aldi baterako geldiaraztea, tresna txikiko arrantzaren erroldako artisau-flotaren atsedeen biologikoa ezarri.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 41 ontzik egin dute geldialdia, 82 tripulatuzailek (81 gizon eta emakume bat) eta 41 armadorek (40 gizon eta emakume bat). Egindako gastua, guztira, 285.608,89 €-koa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1.helburua: Arrantza-flota egokitzea		
1. ekintza: arrantza-flotaren egitura.		
1. adierazlea Arrantza-ontzien gaitasuna kudeatzea, doitzea eta erregulatzea: Arrantza-unitateak aldi baterako geldiaraztea (arrantza-unitateak)	39	41
2. adierazlea Tripulanteen kopurua	76	82
Gizonezkoak	76	81
Emakumezkoak	0	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Itsasoratu programa

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuarena. Honen bidez, arrantzako enpresei minimis araubideari atxikitako laguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta 2023rako deialdia egiten da, ikasleek arrantza-ontzietan prestakuntza-egonaldiak egin ahal izan ditzaten (Itsasoratu Programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2023/itsasoratu-2023/web01-a2arraku/es/

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantza-enpresentzako laguntza-programa bat da, arrantza-ontzietan nabigazio-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleen prestakuntza-egonaldiak ahalbidetzeko.

Arrantza-sektorearen errealitatean prestakuntza-praktika sustatzea da helburua, ontzi-arrantzako enpresei nabigazio-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleak ontziratzen lagunduz, ontziratze-aldi bakoitzean sortutako gastuengatik laguntza ekonomikoaren bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Edizio honetan 19 gaztek (19 gizon) eta 16 ontzik hartu dute parte, bai lantokiko prestakuntzan praktikak egiteko modalitatean (LP), bai tunidoen kanpainan udako praktikak egiteko modalitatean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Ikasleen kopurua	16	19
Gizonezkoak	15	19
Emakumezkoak	1	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren beka

2.- Araua

Agindua, 2023ko apirilaren 4koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez beketarako deia egiten baita, 2022-2023 ikasturterako, Pasaiako Blas de Lezo Itsas Arrantzako Heziketa Zentroan, Bermeoko Nautika eta Arrantza Lanbide Heziketako Eskolan eta Ondarroako Antiguako Nautika eta Arrantza Lanbide Heziketako ikastetxean nautika eta arrantzako ikasketak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2023/becas-para-enseanzas-nautico-pesqueras/web01-a2arraku/es/

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea. Horregatik, arrantza-sektorearen premia eta berezitasun sozioekonomikoei erantzuna emateko, beharrezkoa da itsas langileei eta, oro har, merkatuaren betekizunetara egokitutako prestakuntza jaso nahi duten guztiei beka emateko deialdia egitea, Europatik eskatzen denari egokitutako prestakuntza jaso dezaten aipatutako arrantza-sektorearen mesedetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Prestakuntza ekintzak horiek bultzatu dira beka programa baten bidez, hau da, 2022-2023 ikasturteari dagokionez, nautikari eta arrantzari buruzko ikasketak honako hauetan egiteko beken deialdia: Blas Lezo - Pasaiako Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Itsas Arrantzako Prestakuntzarako Eskolan eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean. 168 bekadun izan dira (165 gizon eta 4 emakume)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Bekadunen kopurua	120	169
Gizonezkoak	110	165
Emakumezkoak	10	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ONEKIN 2023 Programa - Elikaduraren eta zuraren balio-kateetan ideiak heltzeko eta digitalizazio-, berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuak definitzeko prozesuei laguntzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2023ko ekitaldirako, elikagaien eta zuraren balio-kateetan digitalizazio-, berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuak definitzeko eta ideiak heltzeko prozesuei laguntzeko laguntzen deialdia egiten duena (ONEKIN 2023 programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302623a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea kontrataziorako laguntzetarako deialdia egitea da negozioa abian jartzearekin lotutako aholkularitza- eta/edo aholkularitza-zerbitzuak garapena, I+Gko proiektuen bideragarritasun-azterketak egitea, horiek lortzea, baliozkotzea eta patenteak eta beste aktibo ez-material batzuk defendatzea, elikagaien segurtasunaren arloa, bai eta berrikuntzaren arloko aholkularitza-lanak ere eta digitalizazioa.

Agindu honetan araututako laguntzek helburu bikoitza dute: ekintzailtza eta jarduera enpresarial berriak sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko elikaduraren eta egurraren balio-katea; eta, bestetik, hobekuntza produktiboak sustatzea negozio-eredua, prozesuak eta erakundearen balio-kateko erakundeen antolamendua. elikadura eta zura, bioekonomiarako, iraunkortasunerako orientazioa energia, elikadura segurua eta osasungarria eta baliabideen erabilera iraunkorra, berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

61 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 54 diruz laguntzeko modukoak dira. 4 atzera egite gertatu dira eta 4 eskaera ez dira heltzen gutxieneko puntuaziora.

Guztira, 291.840 euroko dirulaguntza eman da, eta eragindako inbertsioa 567.107,79 eurokoa izan da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Indicador</u>	<u>Previsión</u>	<u>Resultado</u>
Eskaera kopurua	120	61
Lagundutako proiektuen kopurua	100	54



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeei laguntzak 2023

2.- Araua

1179/2018 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, Fruta- eta barazki-sektoreko ekoizleen erakundeen funts eta programa eragileak arautzen dituena.

558/2020 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, fruta eta barazkien eta mahastizaintza eta ardogintzaren arloan Europar Batasuneko erregelamenduak garatzeko oinarriko araudia ezartzen duten zenbait errege-dekretu aldatzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.boe.es/boe/dias/2018/09/22/pdfs/BOE-A-2018-12836.pdf>

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/06/10/pdfs/BOE-A-2020-5899.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Antolakunde ekoizleak merkatuen antolakunde komunaren oinarria dira, eta beharrezkotzat jotzen da fruten eta barazkien sektorean asoziazionismoa bultzatzea, gaur egungo merkatuaren eskariei aurre egiteko. Merkatu hori lehiakorra da, eta gero eta zorrotzagoa kalitatean. Ekoizleek soilik izango dute arrakasta elkartuz, eskaintza kontzentratuz, ekoizpena eta haren aldizkakotasuna kontrolatuz, merkaturatze-kostuak murriztuz eta merkatuaren beharretara egokituz. Bestalde, ekoizpen-teknikek ingurumena errespetatu behar dutela azpimarratzen da, bai laborantza-sistemetan, bai erabilitako materialen kudeaketan.

Fruten eta barazkien sektoreko esku-hartzeak fruta eta barazkien elkarteak (FBEE) sustatzen ditu, FBEEetan egiten diren programa operatiboak gauzatzeko erabiltzen diren funts operatiboak batera finantzatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Kofinanzatutako laguntzak dira. EAEn bi FBEE baino ez daude aitortuta. Biek ala biek dute onartutako programa eragile bat, laguntzak jasotzeko eskubidea ematen diena. 200.248,45 €jaso dituzte guztira, 360.000 €-ko hasierako partida batetik. Laguntza hori gabe, ekoizleen elkarteak ez ziren sortuko, nekazaritza-politika bateratuaren lehentasunezko helburua baitira. Horri eusteak lehen sektorea eta biztanleria finkoa indartzen ditu.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Fruta eta Barazki Ekoizleen Elkarteari atxikitako enpresak.	2	2
Eragindako gastua (milioitan).	2	0,7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ISV Sustapena 2023 - Mahastizaintza eta ardogintzako esku-hartze sektorialaren programa hirugarren herrialdeetan sustatzeko eta komunikatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko abenduaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita mahastizaintza eta ardogintzako esku-hartze sektorialaren programa (ISV Sustapena) hirugarren herrialdeetan sustatzeko eta komunikatzeko laguntzen 2023. urteko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/08/2303749e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302802e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hirugarren herrialdeetan 2022ko maiatzaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean garatzen diren ardogintzako produktuei buruzko informazio- eta sustapen-ekintza eta -programetarako laguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko deialdian 25 espediente onartu dira, guztira 3.047.149,98 euroko laguntza eta 16.753.685,23 euroko inbertsio induzitua dutenak. Europako funtsekin finantzatzen diren laguntzak dira, eta EAeko proiektuak autonomia-erkidego guztietako proiektu guztiekin lehiatzen dira funtsekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	32	25



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ISV Inbertsioa 2023 - Mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez mahastizaintzako eta ardogintzako eraldaketa-instalazioetan eta azpiegituretan, baita merkaturatze-egituretan eta -tresnetan ere, inbertsio material eta inmaterialak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten den 2023rako (ISV inbertsioa)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/10/2304565e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2401051e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko enpresen errendimendu globala hobetzea eta merkaturako eskarrietara egokitzea, bai eta lehiakortasuna handitzea ere, ardogintzako eraldaketa-instalazioetan eta azpiegituretan egindako inbertsio ukigarri eta ukiezinei finantza-laguntza emanez, bai eta merkaturatzeko egitura eta tresnei ere, baita energia-aurrezpena, energia-efizientzia globala eta prozesu jasangarriak hobetzeko ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko deialdian 28 proiektu onartu dira, guztira 5.568.958,52 euroko laguntza eta 18.468.368,35 euroko eragindako inbertsioa. Europako funtsekin finantzatzen diren laguntzak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko proiektuak gainerako autonomia-erkidego guztietakoekin lehiatzen dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	20	18,5
Onartutako proiektuen kopurua	30	28



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

GASTROBIKAIN 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2023ko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren de minimis araubidean jasotako laguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304100e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/11/2305029e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gastronomiaren eta elikaduraren sektorean estrategikotzat jotzen diren ekimen gastronomikoak diruz laguntzea: berriki tituludun langileek negozio gastronomiko berriak egitea eta ospe handiko jatetxe-negozioek bikaintasuna sendotzea.

Bi laguntza-lerro ezarri dira:

a) Proiektu gastronomiko berriak sustatzeko programa. Helburua da gastronomian edo sukaldaritzako eta/edo sukaldaritzako goi-mailako zikloan unibertsitate-graduetan titulazioa duten pertsonen hasitako gastronomia-negozioak bultzatzea, kalitatea bereizgarri izango duen establezimendu gastronomiko berri bat abian jartzeko.

b) Bikaintasuna sendotzeko programa. Helburua da ibilbide eta kalitate aitortua duten establezimendu gastronomikoak babestea, sektorearen kalitate-estandarretan eta -egiaztapenetan haien aintzatespena hobetzeko, bereziki nazioartean aintzatetsitako gastronomia-gidetan eta bikaintasun gastronomikoko rankingetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko deialdiaren aurrekontua 600.000 eurokoa izan zen. 8 proiektu onartu dira; guztira, 398.622,47 euroko laguntza eta 1.013.551,53 euroko inbertsio induzitua.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua.	6	8
Eragindako gastuaren/inbertsioaren bolumena (M euro).	1,5	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Errioxa JDKren esparruko ardoak destilatzeko ardogintzako sektorearentzako ezohiko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Errioxa JDKren babespean dauden ardoak destilatzeko ardoaren sektoreari 2023an emango zaizkion aparteko laguntzak onartzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/08/2304050e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horien helburua da egonkortasuna ematea Euskadiko ardoa ekoizten duten enpresek gaur egun duten egoerari, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren babespean dauden ardoetan soberakinen salbuespeneko egoera baten ondoren. Horretarako, laguntza-lerro bakarra ezarri da Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren babespean dauden ardoak borondatez destilatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

93 upategiri eman zaie laguntza, 2.967.078,05 €guztira. Deialdia 8.000.000 €-ko finantzaketarekin atera zen. Urtean berandu atera zenez eta destilazioa egiteko egutegia oso estua zenez, eskaeraren aurretik destilazioa egitea eskatzen zuen laguntzaren diseinuarekin batera, eta funtsak guztiontzat ez iristeko arriskuarekin, eskaerak atzeratu egin ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Laguntza koiunturala denez, ez zegoen sartuta DPEan; izan ere, plan horrek, bere izaeratik beragatik, epe ertainerako gidalerroak eta helburuak islatzen dituzten programa estrategikoak biltzen ditu, eta egiturazko izaera du.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elikadura kateko sektoreei laguntzak, Ukrainaren inbasioak eragindako testuinguru ekonomikoak eragin handia izan baitu

2.- Araua

Agindua, 2023ko uztailaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2023rako zuzeneko laguntzak onartzen dituena Ukrainaren inbasioak eragindako testuinguru ekonomikoak eragin handia izan duen elikatze-kateko sektoreentzat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304137e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ukrainaren inbasioak eragindako testuinguru ekonomikoak eragin handia izan duen elikakateko sektoreentzako ezohiko laguntza horien helburua da egonkortasuna ematea Ukrainaren inbasioak eragin handia izan duen sektoreek gaur egun bizi duten egoerari. Itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira. Honako sektore hauetarako ezartzen dira:

1. – Antxoa eta/edo hegaluzea kontserba eta erdikontserben enpresak.
2. – Arrantzako eta akuikulturako produktuak merkaturatzen dituzten enpresak.
3. – Landare-kontserben enpresak.
4. – Okintzako, gozotegietako eta artisau-lantegietako, okintzako edo pastelgintzako lantegiak.
5. – Ogiaren txikizkako merkataritza, bai eta ogiaren salmenta-puntuak ere.
6. – Garagardoa egiten duten enpresak.
7. – Abereak elikatzeko enpresak, abeltzaintza-erabilerarako direnak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Zuzkidura 30.450.000 eurokoa izan zen guztira, horietatik 22.950.000 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura eta 7.500.000 euro Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren kontura.

Denbora-arazoak zirela eta, honako lerro hauek ebatzi ziren urte barruan.

- Landare-kontserben enpresak. 600.000 €-ko zenbatekoa aurreikusi zen, baina ez ziren aurkeztu espero ziren eskaerak. Hamaika enpresari 73.000 euroko laguntza eman zitzaien guztira.
- Garagardoa egiten duten enpresak. 750.000 €-ko zenbatekoa aurreikusi zen. Bederatzi enpresari eman zitzaien laguntza, 623.138,72 €guztira.



- Abereak elikatzeko enpresak, abeltzaintza-erabilerarako direnak. 1.600.000 €-ko zenbatekoa aurreikusi zen. Hamar enpresari eman zitzaien laguntza, 1.519.022,00 €guztira.

Ezin direnez 2023an ebatzi, hurrengo lerroetako laguntzak aurrekontu-transferentzia baten zain daude, ebatzi ahal izateko. Laguntza horiek fakturen arabera ezarri ziren, eta berankortasun-legea aplikatzeak izan duen eraginaren ondorioz, ordain daitezkeen zenbatekoak hasieran kalkulaturakoa eta laguntzari aurkeztutako gastua baino askoz txikiagoak dira.

- Antxoaren eta/edo hegaluzearen kontserben eta erdikontserben enpresak. 7.500.000 €-ko finantzaketa-premiak kalkulatu ziren, eta hamasei espedienteren aldeko ebazpena ematea proposatu da, 840.848,52 €-ko laguntza-zenbatekoarekin.
- Arrantzako eta akuikulturako produktuak merkaturatzen dituzten enpresak. 2.500.000 €-ko finantzaketa-premiak kalkulatu ziren, eta bi espedienteren aldeko ebazpena ematea proposatu da, 18.836,11 €-ko laguntza-zenbatekoarekin.

Hurrengo lerroetan, azken espedienteak izapidetzen ari dira, eta honako aurreikuspen hau dago:

- Okintzako eta gozotegietako lantegiak, eta artisau-lantegiak, okintzakoak edo pastelgintzakoak. 14.500.000 €-ko finantzaketa kalkulatu zen. 261 eskaera jaso ziren, eta kalkulatu da laguntza 4.300.000 €-koa izango dela.
- Ogiaren txikizkako merkataritza, bai eta ogiaren salmenta-puntuak ere. 3.000.000 euroko finantzaketa kalkulatu zen. 308 eskaera jaso ziren, eta kalkulatu da laguntza 850.000 €-koa izango dela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Laguntza koiunturala denez, ez dago DPEan sartuta; izan ere, plan horrek, bere izaeragatik beragatik, epe ertainerako jarraibideak eta helburuak islatzen dituzten programa estrategikoak biltzen ditu, eta egiturazko izaera du.



1.- Dirulaguntzen programaren izenburua

Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzen dituena 2023ko ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzen dituena 2023ko ekitaldirako.

Ebazpena, 2023ko azaroaren 14koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez ematen eta ukatzen baitira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduaren babesean eskatutako laguntzak. Agindu horren bidez, nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzen dira 2023ko ekitaldirako. (Iragarki-taulan argitaratzea)

Ebazpen hori argitaratzea, laguntzei publizitatea emateko.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu orokorra: Nekazaritzako ekoizpenaren eta produktuen kalitatea hobetzea.

Neurri horren bidez, batez ere, produktuak elikakatean hobeto txertatzen lagunduko da. Horretarako, gure ekoizpen-sektoreak katearen barruan balio erantsia sortzeko duen zeregina bultzatuko da, ziurtatutako eta aitortutako kalitatea duten euskal produktuak Erkidegoko merkatuan hobeto kokatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek eta produktuek Euskadiko kalitate bereizi eta ziurtatuaren estrategian parte-hartze handiagoa izatea sustatuko da, hori baita gure nekazaritza-politikaren eta gure gastronomiaren oinarri.

Horretarako, aipatutako aginduan hiru laguntza-ildo ezartzen dira:

- a) 2023-2027 HAPBko 7131. esku-hartzea: nekazariak kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza.
- b) 2023-2027 HAPBko 7132. esku-hartzea: Ekoizle-elkarteek Erkidegoko merkaturako egindako informazio- eta sustapen-jardueretarako laguntza, kalitate-araubide baten pean dauden produktuei dagokienez.
- c) 2015-2022 Landa Garapenerako Programaren 3.1 neurria (nekazariak kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza). 2019., 2020., 2021. eta 2022. urteetan diruz lagundu daitezkeen kalitate-



arabideetan izena eman zuten eragileentzako dirulaguntza da. Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren dagokion ebazpenaren bidez laguntza jasotzeko eskubidea aitortuta zuten pertsonen eskabideak soilik hartuko dira kontuan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023an, kalitatearen arabidean lehen aldiz parte hartu duten 7131 onuradunen kopurua 41ekoa izan da; LGP 2015-2022ko 3.1 neurriagatik laguntza jaso duten pertsonak, berriz, 77 izan dira. Guztira, 118 onuradun izan dira (143 izan ziren 2022an). Onuradun horietatik, 46 emakumeak edo titulartasun partekatuko ustiategiak edo Emakume Nekazarien Estatutuaren parekotasun-baldintza betetzen duten pertsona-taldeak dira, eta, beraz, gainerakoek baino % 15 gehiago kobratu dute. Aurrekontuaren % 76,15 gauzatu da.

Kalitateko produktuei buruzko informazio- eta promozio-jarduerak egiten dituzten ekoizleen elkarteei zuzendutako 7132 laguntza-lerroan, 8 izan dira onuradunak (9 eskaera erantzun ziren 2021ean). Azpineurri horretan aurrekontuaren % 64,40 gauzatu zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Parte hartu duten nekazarien kopurua	200	118
Ekoizle-elkartek (informazio- eta sustapen-kanpainak)	10	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako laguntzak 2019-2020

2.- Araua

1) AGINDUA, 2019ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak (EHAako 152. zk., 2019ko abuztuaren 13a, asteartea).

2) AGINDUA, 2020ko ekainaren 23koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez agindu hau aldatzen eta beste epe bat irekitzen baita: Agindua, 2019ko uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak. (EHAako 126. zk., 2020ko ekainaren 29a, astelehena).

3) AGINDUA, 2021eko ekainaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez agindu hau bigarren aldiz aldatzen baita: Agindua, 2019ko uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak (EHAako 125. zk., 2021ko ekainaren 25a, ostirala).

4) AGINDUA, 2022ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez hirugarrenez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen agindua, eta epea irekitzen baita (EHAako 149. zk., 2022ko abuztuaren 3a, asteazkena).

5) EBAZPENA, 2023ko ekainaren 21ekoa, Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendariarena, industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako laguntzen programaren indarraldia luzatu dela argitara emateko dena. (EHAako 124. zk., 2023ko ekainaren 30a, asteazkena).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

1) <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903867e.pdf>

2) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002537e.pdf>

3) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2021/06/2103646e.pdf>

4) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/08/2203512e.pdf>

5) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2303154e.pdf>



4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikoa lortzeko jarduketetarako laguntzen programak arautzen duen apirilaren 12ko 263/2019n Errege Dekretuan babestutako laguntzetarako deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikoaren hobekuntzaren bitartez karbono dioxidoaren emisioak eta azken energia-kontsumoa murrizteko jarduketak piztu eta sustatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko abenduaren 31ra arte, 463 eskaera aurkeztu ziren. Aztertutako espedienteetatik (396) 284 onartu ziren, 30,6 milioi euroko laguntza emateko konpromisoa hartuz, programari esleitutako 61 milioi euroen ia erdia.

Laguntza horrekin 145,6 milioi euroko inbertsio berriak babestu ziren, eta 215,2 milioi euroko inbertsioak eragin ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	280	284
Mobilizatutako inbertsioak	196M€	215,2M€



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

GAUZATU INDUSTRIA programa. Laguntza itzulgarriak oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. 2023ko Ekitaldia

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko abenduaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta iragartzen baitira oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko 2023ko ekitaldirako laguntza itzulgarriak. Gauzatu Industria programa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua: AGINDUA, 2022ko abenduaren 21ekoa (2022ko abenduaren 28ko EHAA, 247. zk.)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205699e.pdf>

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 7koa, Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Gauzatu-Industria programako 2023ko ekitaldiko laguntzen onuradunen zerrenda. Gauzatu-industria programaren bidez, teknologia-oinarriko ETEak edo ETE berritzaileak sortu eta garatzeko laguntzak ematen dira (2023ko azaroaren 20ko EHAA, 221. zk.)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/11/2305208e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzaren modalitatea laguntza itzulgarriak ematean datza, 120.000 euroko inbertsio onartua duten eta, aldi berean, inbertsioak hasi eta gehienez 24 hilabeteko epean enpleguak mantentzea eta/edo sortzea dakarten proiektuei.

Lagun daitekeen inbertsioaren % 35erainokoak izan daitezke emango diren laguntza itzulgarriak

Laguntza hauek lortu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio-proiektuak egiten dituzten ETEek:

- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa txikientzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 35eko laguntza itzulgarriak.
- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa ertainentzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile txikientzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile ertainentzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 25eko laguntza itzulgarriak



Helburua da: Oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena bultzatzea, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa, enplegua sortzen duten inbertsioak babestuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko DEIALDIAREN EMAITZAK

	Enpresen kopurua	%	Aurkeztutako inbertsioa	Aurkeztutako inbertsioa	Aurrerakin itzulgarria
Aurkeztuak	80		226.690.614,97		
Emandakoak	53	66%	189.254.085,88	91.975.854,23	28.000.000
Txikiak	35	66%	119.303.351,53	58.692.804,55	18.738.452,01
Ertainak	18	34%	69.950.734,35	33.283.049,68	9.261.547,99
Bazertuak	8	10%			
Ukatuak	19	24%			

Emandako dirulaguntzak:

	Enpresen kopurua	%	Aurkeztutako inbertsioa	Aurkeztutako inbertsioa	Aurrerakin itzulgarria
Teknologikoak	18	34%	86.991.336,76	41.427.924,34	13.558.987,95
Txikiak	12	67%	31.511.940,76	22.612.213,01	7.914.274,55
Ertainak	6	33%	55.479.396,00	18.815.711,33	5.644.713,40
Berritzaileak	35	66%	102.262.749,12	50.547.929,89	14.441.012,05
Txikiak	23	66%	87.791.410,77	36.080.591,54	10.824.177,46
Ertainak	12	34%	14.471.338,35	14.467.338,35	3.616.834,59

AURREKONTU-PROGRAMAREN TAMAINAREKIN DUTEN LOTURA

EAEko ETEak gure ekonomiaren suspertzean eragina duten inbertsioak egitearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, krisialdia bizi duen arren. Hazkundera neurrizkoa da, eta helburua lehiakorak izaten jarraitzea eta lehendik dauden lanpostuak finkatzea da, baita ahalik eta enplegu gehien sortzea ere. Programa egokia da eta ETEek finantza-erakundeen ordezkotako finantza-tresna izateko dituzten beharrak betetzen ditu.

53 enpresa-proiektu lagundu dira (aurreikusitako 50en % 106), 189,2 milioi euroko inbertsio aurkeztu induzitua egin da (aurreikusitako 75en % 252,34) eta 569 lanpostu sortu dira (aurreikusitako 500en %



175,4). Plantillei eusteari dagokionez, % 30,11 emakumeen enpleguei dagokie, oinarri teknologikoko enpresen kasuan, eta % 19,82ra jaisten da enpresa berritzaileen kasuan.

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA

Programak oinarri teknologikoko enpresak eta enpresa berritzaileak sustatzen ditu; hortaz, baita garapen teknologikoa eta berrikuntza ere. EAEn dagoen azpiegitura teknologikoa, Teknologiaren Euskal Sarearen bidez, funtsezkoa da era honetako enpresak sortzeko. Era berean, halako elkarrekikotasun-harremana sortuko da, ezen oinarri teknologikoko enpresak teknologia-eskatzaille aditu bihurtuko baitira; horrela, egokitu egingo dira eskaintza teknologikoaren zerbitzuak.

Bestalde, enplegua sortzea edo mantentzea bultzatzen du; hori dela eta, eragina du ekonomiaren parametro garrantzitsuetako batean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	50	53
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	100	105
Enpleguak	500	877



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

INDARTU Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko apirilaaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deitzen baita 2023ko ekitaldirako Ezkerralde Hedatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batezbestekoa baino % 5etik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egingo duten eta, beraz, gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako dirulaguntza- programa. Indartu 2023 programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Agindua, 2023ko apirilaaren 18koa (EHAA 2023/05/23 81 zk.):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302028e.pdf>

Ebazpena, 2023ko urtarrilaren 09koa, (EHAA 2023/01/18 14 zk.): 2023ko Onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400256e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzaren modalitatea laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 10 (enpresa handia) edo % 15 (ETEak) itzuli beharrik gabeko diru-laguntza ematean datza. Jarduerak ezin izango dira hasi eskabidea aurkeztu baino lehen, eta data horretatik aurrera egin beharko dira, gehienez ere hurrengo bi urte naturaletan, ezaugarrien eta enpresa-planen arabera. Horrez gain, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Enpresa handiek, gutxienez, 1.500.000,000 euroko inbertsio onartua egin beharko dute, eta ETEek, gutxienez 200.000,00 euroko inbertsio onartua egin beharko dute. Aurreko paragrafoan adierazitako gutxienerako inbertsio onartura iritsi ez arren, gutxienez 25 lanpostu sortzen badituzte (enpresa handien kasuan) edota gutxienez 5 lanpostu garbi sortzen badituzte (enpresa txiki eta ertainen kasuan).
- Enpresaren baliabide propioak, diru-laguntzak kanpoan utzita, gutxienez laguntza jaso dezakeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25 izan beharko dute.
- Kontuan hartu beharreko enplegu-sorkuntza zein inbertsioak erakunde juridiko bakarrak egin beharko ditu, eta, enpresa-taldean kasuan, % 100eko akzio-partaidetzarekin, zenbait produkzio-zentro badituzte, arau honetako irizpideak betetzen dituzten eta inbertsioen xede diren produkzio-zentroetan edo produkzio-zentroan baino ez.

Diru-laguntzek gehieneko muga izango dute; izan ere, ezin izango dira 3.000.000,00 eurotik gorakoak izan enpresako.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 68

Eragindako/onartutako inbertsioa: 134.821.498,22 euro

Mantendutako lanpostuak: 1.955. Onartutako lanpostuak: 260

Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena 16.999.644,34 euro.

Deialdiak ezarritako aurreikuspenak gainditu ditu, Vitoria-Gasteiz udalerria EAEko batez bestekoaren % 5etik gorako tasa dutenen artean sartu baita, 20 espedienterekin.

68 enpresa-proiekturi lagundu zaie (aurreikusitako 40 proiektuetatik %170,00); proiektu horien bidez, 134,82 milioi euro inbertitu dira (aurreikusitako 125 milioietatik %111,05%), eta 260 lanpostu sortu (aurreikusitako 200 lanpostuetatik % 86,66).

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programa honek eragina du parametro makroekonomikoetan, hobetu egiten baititu, batez ere enplegua zuzenean zein zeharka sortzea Ezkerralde Hedatuan eta urteko batez bestekoaren %10tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	40	68
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	125	134,82
Enpleguak	300	260



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Bideratu Berria

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urriaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Berria programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Agindua, 2017ko urriaren 17koa (EHAA 2017/10/2017 203 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/10/1705093e.shtml>

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 8koa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzetarako 2023ko deialdia. Bideratu Berria programa.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301330e.pdf>

Ebazpena, 2023ko urtarrilaren 09koa, (EHAA 2023/01/18 14 zk.): 2023ko Onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400257e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

BIDERATU BERRIA programaren bidez, neurriak gauzatzea sustatzen da, epe ertain eta luzera bideragarritasuna ezartzeko egindako berregituratze-planen barruan.

Laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira. Onartutako laguntzaren zenbatekoa planeko berregituratze-neurrien kostu osoaren % 50era artekoa izango da, baldin eta laguntzen onuradunak, bere baliabideak erabilita, hein berean laguntzen badu neurriak finantzatzen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 1

Mantendutako lanpostuak: 30

Onartutako aurrerakin itzulgarriak: 400.000,00 euro

Proiektu 1 lagundu da (aurreikusitako 3en % 33,33). Proiektu horrek 30 pertsonako enplegua finkatu du (aurreikusitako 200en % 15) eta enpresak 400.000,00 euro jarri ditu (aurreikusitako 2en % 25).

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:



Programaren helburua da, krisiak jo arren, berriro lehiakorrak izateko aukera duten ETEen beharrianak asetzea eta, horrela, berriz bideragarriak izateko indarra eskaintzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	3	1
Enpresek jarritako baliabide propioak (milioi eurotan)	2	0,4
Finkatutako lanpostuak	200	30



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Klusterren Antolakunde Dinamizatzaileen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko abenduaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Klusterrak Dinamizatze Erakundeentzako 2023ko ekitaldiko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Araua: 2022ko abenduaren 21eko Agindua (EHAA, 247. zk., 2022/12/28koa)
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205698e.pdf>

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2022ko abenduaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Klusterrak Dinamizatze Erakundeentzako 2023ko ekitaldiko laguntzak.
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205802e.pdf>

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 13koa, Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko abenduaren 21eko Aginduan ezarritako laguntzak 2023ko ekitaldian jasoko dituzten erakunde onuradunen zerrenda; aipatutako agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzaileentzako babes-laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten da 2023ko ekitaldirako
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305741e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honetan jasotako laguntzak itzuli ezingo diren dirulaguntzak dira eta honako laguntza-muga hauek dituzte:

- Nazioartekotze-prozesurako laguntza-zerbitzuak eta jarduketak: onartutako gastuen % 40, gehienez. BasqueTrade & Investment agentziarekin elkarlanean egindako proiektuak eta jarduketak izanez gero, laguntzaren gehieneko intentsitatea onartutako gastuen % 50era arte handituko da.
- Enpresek proiektuetan parte hartzeko eta haiei laguntzeko zerbitzuak (nazioartekotzean salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- Zaintza-, informazio-, benchmarking- eta estrategia-zerbitzuak: onartutako gastuen % 40, gehienez.
- Hedapen-zerbitzuak, jardunaldiak, topaketak eta ekitaldiak (nazioartekoak salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- Foroak dinamizatzea, jarduketa-ildoak eta lankidetzako proiektuak zehazteko: onartutako gastuen % 50, gehienez.



- f) Erronka partekatuko proiektu-taldeak dinamizatzea (aurrez garatu da, DIN1ean): onartutako gastuen % 50, gehienez.
- g) Elkarteko talde teknikoaren gaitasunak garatzea: onartutako gastuen % 40, gehienez.
- h) Klusterraren sustapena eta garapena, bazkideak erakartzea, komunikazioa (webguneak, buletinak eta abar): onartutako gastuen % 40, gehienez.
- i) Ekintza pilotuak: onartutako gastuen % 50, gehienez.
- 3.– Onuradun bakoitzak 450.000,00 euroko laguntza jaso ahal izango du gehienez.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

	Estrategia	Berrikuntza	Nazioartekotzea	Teknologia	Guztira
Diru-laguntza	834.239	599.767	950.000	1.433.994	3.818.000

Aurreko deialdietatik ikusi da KADen ekarpenak Eusko Jaurlaritzarenak baino erritmo handiagoan hazten direla (5.680.658 €; Eusko Jaurlaritzak 3.818.000 euro eman zituen, eta 2022ko datuekin alderatuta, % 14,60 gehiago).

2023an, 9.498.658 euroko finantzaketa-beharra egon zen (2022an aurkeztutakoa baino % 7,79 handiagoa). Klusterren urteko jarduketa-planak (KAP) osatzen dituzten ekintzen hautagarritasuna ebaluatu ondoren, KAP eta erakunde bakoitzak proposatutako 4.224.942,73 euroko dirulaguntza beharko zela kalkulatu zen, baina 2023rako aurrekontu-erabilgarritasuna 3.818.000 eurokoa zen, eta horrek agerian uzten du 406.943 euroko «aurrekontu-zuzkiduraren defizita» dagoela.

ERABILGARRITASUNA ETA GIZARTE-ERAGINA

Programa honek euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen du, garapen teknologikoaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen arloetako lankidetzaren eta lanaren bidez.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Erreferentziako kluster-eremuen kopurua	16	16
Erakunde dinamizataile aktiboen kopurua	24	24
Elkartutako enpresen (ETEak) kopurua	1.917 (1631)	1.925 (1440))
Nazioartekotzeko lankidetzeta-jardueren kopurua	121	179
Berrikuntzarako eta teknologiarako lankidetzeta-taldeen eta jarduketan kopurua	238	281
KEBetako barne-taldean dedikazioa (orduak)	137000	174.096
Jarduketan finantzaketa pribatuaren balioa (KEBetako kideak) (euroak)	5.600.000	6.184.887



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Deskarbonizazio Industrialeko Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko irailaren 12koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2023ko ekitaldirako dirulaguntzen programa, Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsioak egiten dituzten eta, deskarbonizazioaren bidez, beren ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten enpresentzat. «Deskarbonizazio Industrialeko Programa».

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2023ko irailaren 12koa (EHAA 2023/09/19 179 zk.):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304324e.pdf>

Ebazpena, 2023ko urtarrilaren 09koa, (EHAA 2023/01/18 14 zk.): 2023ko Onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400258e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak itzuli beharrik gabeko laguntza gisa egituratzen dira, eta horrek, aurreko eskakizunekin batera, aukera ematen du finantza-egitura saneatuak dituzten eta inbertsioak finkatu aurreko urteei eusteko gai diren enpresak eratzeko.

Agindu honen esparruan norgehiagoka-prozeduraren bidez emango diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta ehuneko hauek izango dituzte:

- Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 20.
- Laguntzaren intentsitatea 5 puntu handituko da enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan, eta 10 puntu enpresa txikiei emandako laguntzen kasuan.
- Laguntzaren intentsitatea ehuneko bi puntu eta erdi (% 2,5) handituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ezkerralde zabalduan kokatutako inbertsioen kasuan.

Diru-laguntzek 1.500.000,00 euroko gehieneko muga izango dute enpresa eta/edo enpresa-talde bakoitzeko.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 11

Eragindako/onartutako inbertsioa: 15.956.506,71 euro

Mantendutako lanpostuak: 552.

Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena 3.480.666,34 euro.

Programa honen lehenengo deialdia da, Europako Erkidegoko erregelamenduaren bertsio berriaren ondorioz.

Justifikazio-memoria ekonomikoan oinarrituta, 11 enpresa-proiektu babestu dira (aurreikusitako 10 proiektuen % 110,00), 15,95 milioi euroko eragindako inbertsioa metatzen dutenak (aurreikusitako 50 lanpostuen % 31,90), eta 552 lanposturi eustea (aurreikusitako 500 lanpostuen % 110,40).

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programa honek azpimarratzen du karbono gutxiko ekonomia baterantz gogor aurrera egiteko konpromisoa, enplegua sortzeko eta industria- eta teknologia-garapenerako aukera gisa, nazioartean adostutako klimaren neutraltasun-helburuak betetzeko konpromisoa hartuz, eta batez besteko tenperatura globalak 2 gradu zentigraduak gainditzea eta 2050ean berotegi-efektuko gasen emisioan herrialde neutroa izatea saihesten lagunduz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	10	118
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	50	15,95
Enpleguak	500	552



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hazitek 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Enpresetan I+G bultzatzeko Hazitek programa, eta deitzen baita I. fasea, diruz laguntzeko modukoak diren proiektuen eskabideena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Enpresetan I+G bultzatzeko Hazitek programa, eta deitzen baita I. fasea, diruz laguntzeko modukoak diren proiektuen eskabideena.

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 5koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita Hazitek programaren esparruan diruz laguntzeko modukoak diren proiektu-eskabideen I. fasea, 2023ko deialdia.

EBAZPENA, 2023ko irailaren 12koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2023ko ekitaldian enpresetan I+G bultzatzeko programaren II. fasea egiteko deialdia.

EBAZPENA, 2023KO abenduaren 15koa, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, HAZITEK programaren 2023ko deialdiko I. fasean onartutako proiektuetarako laguntzak onartzeko II. fasea ebazten duena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua ikerkuntza industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak burutzen laguntzeko laguntza-programak ematea da. Proiektu horiek izaera lehiakorra nahiz estrategikoa izan dezakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planean jasotako espezializazio-esparruetan gauzatzekoak dira.

Lehiakortasun-proiektuak: Izaera lehiakorreko I+G proiektutzat joko dira ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektu-tipologia hauek:

- 1) Produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzeko edo lehendik bazeudenak nabarmen hobetzeko proiektuak.
- 2) Zientzian eta teknologian oinarritutako enpresa berriak sortzeko proiektuak.



Proiektu estrategikoak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planeko espezializazio-esparruetan jasotako izaera estrategikoko ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektuak. Proiektu horiek, teknologia- eta berrikuntza-esparruetako ikerkuntza eta garapenean, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaz sustatu beharko dute, Euskadiko ekonomian trakzio-efektua eraginez eta ETEen esku-hartzeari eta Horizon Europe Programari mesede eginez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerranda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

	<u>Babestutako proiektuak</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>	<u>Diru-laguntza</u>
Estrategikoak	31	136,1 Mil.€	50,0 Mil. €
Lehiakorrak	667	155,9 Mil. €	43,4 Mil. €
Guztira	698	292,0 Mil. €	93,4 Mil. €

Kontuan izanik 2023ko deialdiak 93,4 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %100koa izan da.

Lehiakortasunerako Hazitek programa baliagarria da enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzeko, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoa areagotzeko; halaber, egokia da egungo gizarte dinamiko, konplexu eta globalak unean-unean dituen behar berriekin eta iraunkortasun-premiarekin zerikusia duten eskari zientifiko-teknologikoei erantzun egokia emateko.

Hazitek programaren ildo estrategikoa baliagarria da lankidetzaz publiko-pribatua garatzeko eta enpresa-partzuergoak sustatzeko, baldin eta ikerketa jarduketaz estrategikoko esparruetan egiten badute, Euskadiko ekonomia sustatzen badute, eta, aldi berean, I+G+b arloko lankidetzaz-kultura zabaltzen badute zientzia-, teknologia-, enpresa-sistemako eragile guztien artean.

Gizarte-inpaktua: hazkunde ekonomikoa, enpresen lehiakortasun handiagoak eraginda, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak eskaintzearen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresa eta patente berriak sortzearen ondorioz, horrekin guztiarekin enplegua sortu eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatu nahian.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektu berezien kopurua	2	5
Lagundutako lankidetzako proiektu estrategikoen kopurua	35	31
Lagundutako enpresen kopurua	180	170
Lagundutako lankidetzeta lehiakortasun-proiektuen kopurua	267	247
Enpresen I+Gko unitateekin edo sareko beste agente batzuekin abiarazitako lehiakortasun-proiektuen kopurua	550	511
Produktuen garapenerako proiektu diruz lagunduen kopurua	750	667
Produktuen garapenerako proiektuetan diruz lagundutako enpresen kopurua	775	702
Oinarri teknologikodun enpresa berriak ateratzeko proiektu berri diruz lagunduen kopurua	15	6
OTEBetarako I+Gan lagundutako agenteen kopurua	5	0
OTEBak ateratzeko I+G proiektuetarako lagundutako enpresen kopurua	20	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkartek 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa –Elkartek Programa– arautzen duena eta diruz lagundu daitezkeen proiektuak eskatzeko, I. faserako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa –Elkartek Programa– arautzen duena eta diruz lagundu daitezkeen proiektuak eskatzeko, I. faserako deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2023KO uztailaren 4koa, Industria Sailburuordearena, Elkartek programaren 2023ko deialdiaren barruan diruz lagundu daitezkeen proiektuak hautatzeko I. fasea ebazten duena.

EBAZPENA, 2023ko irailaren 19koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita, 2023ko ekitaldiari dagokionez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen II. faserako deialdia. Elkartek programa.

RESOLUCION de 27 de diciembre de 2023 del Viceconsejero de Industria, por la que se resuelve la fase II de aprobación de las ayudas del programa Elkartek-convocatoria 2023

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honek ikerketa-proiektu kolaboratiboak babesten ditu, dela oinarritzakoak, dela industrialak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko (Elkartek programa).



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Babestutako proiektuak	Zk.	Aurrekontu onartua	Emandako dirulaguntza
Oinarrizko ikerketa kooperatiboak egiteko proiektuak.	36	38,49 Mill. €	38,49 Mill. €
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak	11	4,43 Mill. €	2,22 Mill. €
Interes bereziko ekintza osagarriak	6	0,6 Mill. €	0,3 Mill. €
GUZTIRA	53	43,50 Mill. €	41,00 Mill. €

Kontuan izanik 2023ko deialdiak 41 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %100koa izan da.

Proiektuak bat datoz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2030 Euskadi Planaren espezializazio-esparruekin.

Programa baliagarria da ezagutza lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interes estrategikoa duten garapen teknologikoko esparruetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2030 Euskadi Planean jasotakoetan, alegia.

Gizartean izango duen inpaktua: Ezagutza estrategikoa sortzea garapenerako, enpresen lehiakortasuna sustatzea, enpresa-sektore berriak sortzea etorkizunean.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Arlo estrategikoetan, lankidetzan garatutako oinarrizko ikerketa proiektuen kopurua	35	36
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuen kopurua	20	11
Interes bereziko ekintza osagarrien kopurua	8	6
Lagundutako eragileen kopurua	70	61



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emaitek Plus 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena.

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504223e.pdf>

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/08/1704120e.pdf>

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903681e.pdf>

EBAZPENA, 2023ko irailaren 1ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Emaitek Plus laguntzen programako 2023ko ekitaldirako deialdia.

Ebazpena, 2023ko abenduaren 1ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa digitaleko sailburuordearena, honen bidez, Emaitek Plus programaren 2023ko deialdiaren esparruan egindako eskaerak ebazten dira.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Foku Anitzeko Teknologia Zentroyen eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroyen jarduera ez-ekonomikoari laguntzera bideratutako laguntza publikoak. Hala, finantzaketa esleituko die, jardueraren emaitzen ebaluazioaren eta analisiaren bitartez, maila globalean, Emaitek Plus programaren bidez.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontua, guztira: 70.857.145 euro. Kontuan izanik 2023ko deialdiak 70,86 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %100ekoa izan da.

Hamaika teknologia-zentroren eta lau CIC ikerketa-zentro kooperatiboren jardura ez-ekonomikoa babestu da; era berean, 23 hobekuntza-ekintza lagundu dira teknologia-zentroen aginte-koadroa betetzeko, eta 11 hobekuntza-ekintza egin dira CICetako aginte-koadroen betetzea hobetzeko.

Teknologia zentroetan, egikaritze mailaren batz-bestekoa %92,65tik (2022an), %93,33ra igo da 2023an; eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroetan, %87,47tik (2022an), %89,63ra (2023an).

Programa baliagarria da zentro teknologikoei eta laguntzeko, eta finantzaketa esleitzen die haien jardueran maila orokorrean izandako emaitzak ebaluatu eta aztertuta, adierazledun aginte-koadro baten bidez, ekitaldi bakoitzean lortu beharreko helburu batzuekin.

Gizartean izango duen inpaktua: Agenteen ezagutzak hobetzea eta ikerketen emaitzak enpresa alorrera transferitzea; haiek laguntzen baitute enpresen lehiakortasunaren sustapenean eta, baita, beraien garapen ekonomikoan, EAEk garapen jasagarria izan dezan.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako Zentroen kopurua	15	15
Argitalpen zientifikoaren kopurua	1.350	1.350
Eskatu diren patenteen kopurua	125	117
Azken 5 urteotan NEBTSen fakturazioa	19.000 milaka euro	25.084 milaka euro



1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Azpitek 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 20koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta deitzen baita azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntzen Azpitek 2023 programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2023ko ekainaren 20koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta deitzen baita azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntzen Azpitek 2023 programa

Ebazpena, 2023ko abenduaren 28koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuorearena. Honen bidez, Azpitek 2023 programaren esparruan egindako eskaerak ebazten dira

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da diruz laguntzea Foku Anitzeko Zentro Teknologikoek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBS) Ikerketa Kooperatiboko Zentroek (IKZ) egindako azpiegitura zientifiko-teknologikoen (A Z-T) eta ekipamendu zientifiko-teknikoen eskuratzeko, horien instalakuntza eta eguneratzea I+G+B garatzeko eta emaitzak baliozteko eta frogatzeko. Hori guztia emaitzen kalitatea eta emaitzen eragin zientifiko-teknologikoa, ekonomikoa eta soziala hobetzera bideratuta dago.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Babestutako proiektuak	Zk.	Aurrekontu onartua	Emandako diru-laguntza
Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko edota eguneratzeko proiektuak	14	7,9 Mill. €	7,7 Mill. €

Aintzat hartuta 2022eko deialdiko aurrekontua 7,7 M eurokoa zela, aurrekontua %100ean bete da.

Euskadik dituen erronkei zientziatik eta teknologiatik erantzuten jarraitzeko, beharrezkoa da azpiegitura zientifiko-teknologiko bikainak izatea, Euskadin eragina duten 3 trantsizioei heltzeko: trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetiko-klimatikoa eta trantsizio soziala eta sanitarioa.



A Z-Tk dira I+G+Bko ekosistemen eta berrikuntzan oinarritzen diren balio-kateen bizkarrezurra. Hala, A Z-Tek teknologiaren garapen eta sorkuntza bateratua babesten dute, eta ziurtatzen dute teknologia hartzen dela kontzeptuaren probatik eta laborategietako baliozkotzetik hasita eta industria-inguruneko prototipoen erakusketara, dagokion inpaktu sozioekonomikoarekin Euskadin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	30	14



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BIKAINTEK 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko otsailaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+G proiektuak egiteko laguntzak –Bikaintek programa–.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301130e.pdf>

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301170e.pdf>

Emate-ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305784e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da euskal produkzio-sarearen lehiakortasuna handitzeko I+G proiektuak garatzen laguntzea, talentua txertatuz, doktore-titulua duten ikertzaileak kontratatuz edo/eta industria-doktoregoak eginez, bai enpresetan, bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile jakin batzuetan (Ikerketa Kooperatiboko Zentroak, Zentro Teknologikoak eta enpresetako I+G Unitateak).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren aurrekontu osoa 5.670.000 eurokoa izan zen: 1.402.500 euroko ordainketa-kreditua 2023ko ekitaldirako, 2.085.000 euro 2024ko ekitaldirako, 1.432.500 euro 2025eko ekitaldirako eta 750.000 euro 2026ko ekitaldirako.

70 eskaera jaso ziren: 42 doktoreak kontratatuzko lerroan eta 28 doktoretza industrialak egiteko lerroan. Guztira, 48 ikerlari kontratatu ziren, zeinetatik 23 emakumezkoak izan ziren (%48), eta 25 gizonezkoak (%52).

Aurrekontuaren egikaritzea %63koa izan da.

Eragina gizartean: doktoreak kontratatuzko lerroan, enpresen talentu- eta lehiakortasun-maila handitzen da, prestakuntzan bereziki garatutako trebetasunak dituzten pertsonak enpresa-sarean sartuz. Bestalde, doktorego-ikasketak enpresetan edo ZTBESko eragile jakin batzuetan egingo dituzten pertsonak kontratatuzko lerroan, doktoregoko ikaslea EAEko enpresa-inguruneetan I+G proiektuak garatzeko



moduan jarri eta horrela, talentua atxiki nahi da. Horrela, aldi berean, EAEko industria-ehunaren lehiakortasuna handitzen laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako doktorego-tesi kopurua	32	21
Kontratatu den doktore kopurua	48	27



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko programa

2.- Araua

- AGINDUA, 2023ko ekainaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2023ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiten duena, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuari jarraikiz.
- 202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2303093e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/simplif_2023/eu_def/adjuntos/20231227-Ebazpena.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua enpresei dirulaguntzak ematea da, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten.

Honako inbertsio-lerro hauek babesten dira:

- a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetatik haragoko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.
- b) Batasunaren etorkizuneko arauetara alde aurretik egokitzeko laguntzak.
- c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak.
- d) Hirugarrenek sortutako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko inbertsioetarako laguntzak, baldintza metagarri hauek betez gero:
 - Inbertsioa beste enpresa batzuek sortutako hondakinak murrizteko erabiltzen da. – Beste egoera batzuetan, tratatutako material birziklatu edo berrerabiliak ezabatu egingo lirateke, edo ingurumena gutxiago zainduz tratatuko lirateke.
 - Laguntzek ez diete zeharka kenduko kutsaduraren erantzuleei Batasuneko legediaren arabera beraiek beren gain hartu beharrekoa den edo enpresa-kostu normalizat jo beharrekoa den edozein karga.
 - Inbertsioaren ondorio bakarria ez da birziklatzeko materialen eskaria handitzea material horien bilketa handitu gabe.



Inbertsioa egungo maila teknikoa gainditzera bideratuko da. Laguntzak, apartatu honetan ezarritakoaz bestela, onuradunaren beraren hondakinak kudeatzera badaude bideratuta, a) lerroko laguntzetan aplikatuko diren irizpide orokorren arabera ebaluatuko dira.

- e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo erantzulea ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.
- f) Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak, ingurumen-alorreko aholkularitza-zerbitzuetarako.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dirulaguntzen erregimen horren 2023ko deialdiak bi prozedura aurreikusten zituen proiektuetarako laguntzak emateko, alegia, prozedura arrunta eta prozedura sinplifikatua.

Deialdi horretarako 82 eskabide jaso ziren, eta atzera egin zutenak kenduta 77 geratu ziren. 4 prozedura aldaketa egon ziren: hasiera batean prozedura sinplifikatuan sartutako 3 espediente prozedura arruntera igaro ziren eta prozedura arruntera aurkeztutako espediente 1 prozedura sinplifikatura igaro zen. Enpresa eskatzaileei dagokienez, 2023ko deialdira 64 enpresa aurkeztu ziren, eta horietako 10ek proiektu bat baino gehiago aurkeztu zuten. Nabarmentzekoa da enpresa hauen % 51 ETEak izan zirela.

Bi prozeduretara aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratu ondoren, 74 proiektu diruz laguntzea ebatzi zen. Laguntza ekonomiko horien gutxi gorabeherako banaketa tematikoari dagokionez:

- Prozedura arruntaren modalitatean honako hau izango da: osoko zenbatekoaren % 46,54 hondakinen sorrera minimizatu edo ezabatzeko hemeretzi (19) proiektu laguntzeko erabiliko da, % 40,10 kutsadura atmosferikoari buruzko bederlatzi (9) proiektu diruz laguntzeko izango da, % 6,35 uraren kutsaduraren aurka borrokatzera edo baliabide hori aprobetxatzera zuzendutako hiru (3) proiektu laguntzeko erabiliko da, % 4,08 lau (4) azterketa egiteko, eta, azkenik, % 2,93 fibrozementua ezabatu eta kudeatzeko proiektu bat (1) gauzatzeko erabiliko da.
- Era berean, prozedura sinplifikatuaren barruan diruz lagundutako guztizko zenbatekoaren % 88,44 EBko arauetatik haratago joateko hemeretzi (19) inbertsio diruz laguntzeko balioko du. Inbertsio horietatik zortzi (8) hondakinak balorizatzeko instalazio berrietan egindako inbertsioak dira eta diruz lagundutako guztizko zenbatekoaren % 73,33 suposatzen dute. % 5,63 bost (5) ingurumen-azterketa diruz laguntzeko balioko du, % 2,26 hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko hiru (3) proiektu eta beste batzuk laguntzeko balioko du, eta, azkenik, % 3,67 ETEei laguntzeko hamaika (11) proiektu diruz laguntzeko balioko du.



Lortutako emaitzei eta erabilgarritasun eta gizartean duen eraginari dagokienez, dirulaguntzen aginduetarako aurrekontu-memorian erabilitako adierazle komuna laguntzen onuradun diren proiektuen kopurua da. Beraz, jarraian, Dirulaguntzen Aginduaren bilakaera parametro honetan deskribatzen da, inbertsioen zenbatekoaren parametroetan eta dirulaguntzaren ehunekoa azken inbertsioarekiko parametroetan ez ezik.

Prozedura	Aurrekontu-zuzkidura	Eskabide kopurua	Proiektu onuradunak	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Portzentaia
PROT	3.050.000 €	39	36	10.905.626,91	2.810.681,56 €	25,77 %
PROTS	1.950.000 €	43	38	2.181.344,43 €	798.314,90 €	36,60 %
GUZTIRA	5.000.000 €	82	74	13.043.853,93 €	3.604.232,46 €	27,58 %

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Itxarondako emaitza (*)
Enpresek egindako inbertsio garbia	--	8.418.163,46 €
Emisioen murrizketa	--	1,37 tona KOH, 6,4 tona KOG eta 4,14 tona NOx
Hondakinen murrizketa	--	6.423,12 tona hondakin arriskutsu eta 36.661,36 tona hondakin-industrial ez-arriskutsu
Hondakinak birziklatzea edo errebalorizatzea	--	7.021 tona hondakin industrial ez-arriskutsu, zeinetatik 5.000 tona eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak baitira

(*) Aurreikusitako emaitza adierazten da, diruz lagundutako jarduerak 2025/12/29an buka baitaitezke.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-laguntzak, Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko irailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta deialdia egiten baita 2023-2024 ikasturterako..

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua: 2023ko irailaren 5eko Agindua (EHAA 174 ZK. 2023ko irailaren 12a)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/09/2304218e.pdf>

Ebazpena: Oraindik ez da ebazpenik eman.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei dirulaguntzak ematea, norgehiagoka-prozeduraren bidez, 2023-2024 ikasturtean Eskolako Agenda 2030 (EA2030) eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 (LHA2030) programak garatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Gaur arte ez da ebazpenik eman. Hala ere, eskaerak aztertu eta balorazio-batzordea egin da, eta, horretan oinarrituta, aurkeztutako 473 eskabidetatik 468 dirulaguntza ematea aurreikusi da, hau da, % 2,5 gutxiago 2022-2023 aldiko deialdiarekin alderatuta.

2023-2024 ikasturterako deialdian 229.525 ikaslek parte hartzea aurreikusten da, hau da, % 3,65eko jaitziera 2022-2023 deialdiarekin alderatuta.

Bestalde, adierazi behar da 2023an EAEko 112 ikastetxek "Eskola Jasangarri" aitortpena lortu dutela, hau da, 2022an baino 3 ikastetxe gehiagok.

Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, guztira 1.250.000 € erabili dira laguntza honetarako, bi ordainketatan banatuta: lehenengo ordainketa ,diru-laguntza eman zen unean egin zen, 1.000.000 €-koa guztira



(guztizkoaren % 80); eta bigarren ordainketa jasotako dirulaguntza justifikatu ondoren egingo da, 250.000 €-koa guztira (gainerako % 20a).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskolako Agenda 2030 programa garatu duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen kopurua.	450	468
Eskolako Agenda 2030 programan dauden unibertsitatez kanpoko ikasleen ehunekoa.	%70	Daturik gabe
Eskola Agenda 2030 programan dauden Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa.	%10	Daturik gabe
"Eskola jasangarri" gisa aitortutako ikastetxeen kopurua.	85	112
Haur eta Gazteen Konferentzian (CONFINT) parte hartu duten ikastetxe iraunkorren kopurua.	20	Daturik gabe



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Natura-ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 17koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuarena, natura-ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsonari, elkartei, fundazioei eta enpresei 2023rako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302563e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305627e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Azaroaren 25eko 9/2021 Legeak, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzekoak, 2. artikuluan zerrendatutako helburuen artean sartzen du natura-ondarearen kontserbazioari aplikatutako ezagutza, prestakuntza eta ikerketa sustatzea, eta 14. artikulutik 16.era bitartekoak eskaintzen ditu helburu hori betetzeko modua zehaztuz, eta hori bat dator dirulaguntzen programa horrekin.

Biodibertsitateari buruzko EBren Estrategiak, hemendik 2030era bitartean: natura gure bizitzetara itzultzea COM (2020) 380 final izenekoak, 3.3.4 atalean, biodibertsitatearen galeraren aurkako borroka irizpide zientifiko sendoetan oinarritu behar duen ezagutza, hezkuntza eta gaitasunak hobetzeari buruz dio, eta ikerketan, berrikuntzan eta ezagutza-trukean inbertitzea funtsezkoa dela daturik onenak lortzeko eta irtenbiderik onenak garatzeko. Jarraipenari eta informazioari buruzko alderdiak hobetzeko neurri zehatzak aurreikusten ditu, biodibertsitateari buruzko epe luzeko ikerketa-plan estrategiko gisa, eta biodibertsitateari buruzko Ezagutza Zentro berri bat sortzea.

2016an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko 2030 Biodibertsitate Estrategiaren 4 helburuetako bat da naturaren ezagutza eta kultura sustatzea, eta, horretarako, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema bultzatzea eta indartzea, ekintza nagusietako bat den aldetik.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 12 eskabide aurkeztu dira, guztiak epearen barruan. Eskabideak baloratzeko prozesu bat egin zen, Aginduaren 15. artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki.

Balorazioa egin ondoren, dirulaguntzen zenbatekoa zehaztu zen, ezarritako baldintzen arabera, harik eta diruz lagun zitezkeen gastuen kontzeptuen arabera aurrekontu-zuzkidura konprometitu arte.

Programaren aurrekontua 180.000,00 €koa da. 7 ikerketa-proiektu lagundu dira diruz: Araban 2 proiektu lagundu dira diruz (% 28,5), Bizkaian proiektu bat (% 14,3), Gipuzkoan 2 proiektu (% 28,5) eta beste 2 proiektu (% 28,5) lurralde autonomiko osoan garatzen dira (% 28,5). Aurrekontuaren % 42,93 Arabara joango da, % 20,42 Bizkaira, % 16,10 Gipuzkoara eta % 20,55 EAera.

Gaika, proiektu gehienak flora eta fauna eta basa-flora kontserbatzearekin lotutako hainbat alderditan zentratzen dira, eta ohikoagoak dira faunarekin lotutakoak.

Ikerketa-proiektuak gauzatzeko epea 18 hilabetekoa da. Izan ere, dagokion agindua izapidetu behar da, eta, horrela, faunaren eta floraren jarduera-aldi oso bat bermatzen da, udaberri-uda-udazkena. Ikerketa-gai batzuek jarduera-aldi oso bat behar dute, bi ez direnean, landa-datuak hartu direla egiaztatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza proiektuen kopurua.	9	7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Urdaibai Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak

2.- Araua

83/2019 DEKRETUA, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibai Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperresteka)

Programaren araua; 83/2019 Dekretua, 2019ko ekainaren 4koa (EHAA, 108. zk., 2019ko ekainaren 10koa, astelehena). <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/06/1902779e.pdf>

Deialdia: AGINDUA, 2022ko azaroaren 16koa (EHAA, 230. zk., 2022ko abenduaren 01koa, osteguna)
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/12/2205248e.pdf>

Emateko ebazpena, EBAZPENA, 2023ko martxoaren 10ekoa (EHAA, 77. zk., 2023ko apirilaren 24koa, astelehena). <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/04/2301935e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitamua onesteko irailaren 27ko 139/2016 Dekretuan baso-erabileretarako ezarritako.

1. lerroa: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuak baso-erabileretarako ezarritako mugek eragindako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko laguntzak.

2. lerroa: zaintza-akordio batean formalizatutako natura-ondarearen kontserbazio aktiboko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak:

- 1. lerroa. Konpentsazio-laguntzak: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuak baso-erabileretarako ezarritako mugek eragindako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko laguntzak. Konpentsazio-partzelen azalera: 10,59 ha.



- 2. lerroa – Zaintza-dirulaguntzak: zaintza-akordio batean formalizatutako natura-ondarearen kontserbazio aktiboko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak. Zaintzapeko lursailen azalera: 22,65 ha.

Aurrekontua gauzatzea:

Kontuan hartuta 2022ko ekitaldiko laguntzen eta dirulaguntzen deialdiak 250.000,00 euro izan dituela, honela banakatuta:

Konpentsazioko laguntza-ildoak: ehun eta berrogeita hamar mila euro (150.000,00).

Zaintzarako dirulaguntzen ildoak: ehun mila euro (100.000,00).

Aurrekontuaren gauzatze-maila % 98,61ekoa da

Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina:

Laguntza eta dirulaguntzekin lotu dira irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.21 artikuluan – 5. apartatua – adierazitako helburuak: baso-masen iraunkortasuna, baso-erabileren errendimendu iraunkorra eta basoen erabilera anitza. Ildo horretan, emango diren laguntzak eta dirulaguntzak baso-baliabideen aprobetxamendu iraunkorrera, naturaren kontserbaziora, arro hidrografikoen eta lurzoruen babesera eta basoen funtzio publikoa indartzera bideratuta daude.

Eta, bestetik, baso-ustategien titularrak administrazio publikoekin lankidetzan aritzera bultzatu dira, baso-ustategiak kontserbatzeko, lehengoratzeko eta ingurumena eta paisaia integratzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hazkunde azkarreko espezieekin landatutako baso-hektareak, espezie autoktonoekin ordezkaturak. (2. lerroa)	70,00 has	22,65 has
Hazkunde azkarreko espezieekin landatutako baso-hektareak, espezie autoktonoekin ordezkaturak. (1. lerroa)	19,14 has	9,49 has
Hazkunde azkarreko espezieekin landatutako baso-hektareak, hazkunde ertain-moteleko espezieekin ordezkaturak. (1. lerroa)	1,98 has	1,10 has



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek egindako ingurumen-boluntariotzako proiektuetarako diru-laguntzak EAEn

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 7koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sail-buruarena, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek EAEn ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzon deialdia egiten duena. 2023ko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua: 2023ko ekainaren 7ko Agindua (EHAA 111 ZK. 2023ko ekainaren 13koa)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302784e.pdf>

Ebazpena: 2023ko irailaren 12ko Ebazpena (EHAA 184 ZK. 2023ko irailaren 26koa)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304420e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da norgehiagoka-prozeduraren bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea eta deialdia egitea. Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hona hemen 2023ko deialdian eskatutako dirulaguntzen eta diruz lagundutako proiektuen laburpena:

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 200.000 €

Guztira 35 proiektu aurkeztu dira 2022ko ekitaldiko deialdian. Aurkeztutako guztiek jaso dute dirulaguntza (16 Bizkaikoak, 14 Gipuzkoakoak, 4 Arabakoak eta 1 Estatu mailakoa).

Proiektuetan parte hartu duten pertsonen kopurua: 5.386

Gizonak: 2.676

Emakumeak: 2.710

- Proiektuen gai nagusiak:

Ingurumena eta paisaia hobetzea (% 10)



Kontsumo iraunkorra (% 10)

Klima-aldaketa (% 7)

Biodibertsitatea (% 13)

Ingurumen-kontzientziazioa eta sentsibilizazioa (% 17)

Hondakinak (% 20)

Hiri-jasangarritasuna (% 23)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Garatutako ingurumen-boluntariotzako proiektuen kopurua (diruz lagunduak)	30	35
Diruz lagundutako ingurumen-boluntariotzako proiektuetan parte hartu dutenen kopurua.	4.500	5.386



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekonomia zirkularreko berrikuntzarako dirulaguntzak

2.- Araua

- AGINDUA, 2022ko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira ekonomia zirkularreko berrikuntzarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta dirulaguntzen deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204510e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/benefit_202210782460947/eu_def/adjuntos/Deialdiaren-ebazpena-berrikuntza-zirkularra-2022.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza hauek EAEko industria ingurumenaren ildoan berritzeko dira. Hori izanik aplikazio-eremua, helburu hauek lortzen lagundu nahi dute:

- Ekonomia zirkularren bidez, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, ekoizpen-prozesuetako baliabideen efizientzia ere aintzakotzat hartuta.
- Lehengaien kontsumoa murriztea eta, bereziki, isur daitezen saihestea.
- Enpresa-jarduera iraunkorrak sortzea, EAEko ekonomiaren suspertze berdean lagun dezaten, baita lehiakortasuna hobetzen eta enplegu kualifikatua sortzen ere.
- Lurraldearen ingurumen-erresilientzia handitzea, merkatu globalean erreplikabilitate handia duten soluzio teknologiko berritzaileen bidez.
- Enpresen arteko lankidetzak sendotzea, Europako tresna zirkularrek dakartzaten erronkei eta aukerei hobeto erantzuteko.

Ekoberrikuntza bultzatzeko bi etapa behar dira:

1.- «Irtenbide teknologiko berrien garapena» etapa, erronka zirkular espezifiko baterako, Europar Batasuneko tresna berde berriekin lerrotatua, ekoberrikuntza zirkularreko enpresa aitzindari eta erreferenteen talde bat finkatuz EAEko gainerako enpresentzat. Irtenbide horiek ekodiseinuko, ekonomia zirkularreko erakusketako edo ekoberrikuntza estrategikoko proiektuen bidez garatzen dira.

2.- «Irtenbide teknologiko edo metodologiko berritzaileak modu eraginkorrean transferitzea» etapa, ekonomia zirkularren arloan garatutakoak, lehentasunezko balio-kateetako EAEko ETEen kopuru handi batentzat, bitarteko eragileen (klusterrak, enpresa-elkarteak, eskualde-agentziak eta abar) behar den parte-hartzearekin.



Hau kontuan hartuta, agindu honen xedea da ekonomia zirkularreko berrikuntzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea eta horien deialdia egitea.

Diruz lagundu ahal izango dira honako jarduketa-ildo hauek:

- 1. ildo. Ekodiseinua eta ekonomia zirkularren erakustaldia.
- 2. ildo. Ekoberrikuntza estrategikoa.
- 3. ildo. ETE zirkularra

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdi horretan 62 eskaera jaso ziren, 61 atzera egindakoak eta/edo egin gabeak deskontatuz gero (2. lerroko egin gabeko eskaera bat, eta horri gehitu behar zaio 2. lerroko eskaeretako bat 1. lerroa pasatu zela eta, azkenik, lerro horren esparruan ebaluatu zela), eta horietatik 22 esleitu ziren, honela banatuta:

Lerroa	Ebaluatutako eskaera kopurua	Emandako eskaeren kopurua
1. lerroa: Ekodiseinua eta ekonomia zirkularren erakustaldia.	29	7
2. lerroa: Ekoberrikuntza estrategikoa.	13	3
3. lerroa: ETE zirkularra	19	12
Guztira	61	22

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarriritasuneko Sailburuordetzak 22 proiektu diruz laguntzea erabaki zuen, 22 enpresa eta/edo erakunde/klusterrek aurkeztuak (azken kasu horretan, guztira 12, hau da, 3. lerroaren onuradun diren kluster eta/edo elkarten kopurua). Azpimarratzekoa da, 3. lerroaren kasu zehatzean, proiektu onuradunen guztizkoari esker 79 ETEK jaso dutela dirulaguntza.

Laguntza ekonomiko horien gutxi gorabeherako gaikako banaketari dagokionez, 1. lerroari dagokionez, guztizko zenbatekoaren % 30 eraikuntza-sektoreko bi proiektu laguntzeko erabiliko da, % 30 siderurgia-sektoreko bi proiektu diruz laguntzeko, % 25 etxetresna elektrikoen eta hozgarrien eremuko bi proiekturi laguntzeko, hurrenez hurren, eta gainerako % 15a ontziak birziklatzeko/balorizatzeko proiektu bati laguntzeko.

Bestalde, 2. lerroari dagokionez, guztizko zenbatekoaren % 59,74 eraikuntza-sektoreko bi proiektu laguntzeko erabiliko da, eta gainerako % 40,26a siderurgia-sektoreko proiektu bat laguntzeko.



Azkenik, 3. lerroari dagokionez, nabarmendu behar da diruz lagundutako guztizko zenbatekoaren % 52,30ek bizi-zikloaren ikuspegiko sei proiektu diruz laguntzeko balioko duela, % 9,0k ingurumena hobetzeko eta erregulazioei aurrea hartzeko proiektu bat diruz laguntzeko balioko duela, % 11,97k balio-katearen jasangarritasuneko bi proiektu laguntzeko balioko duela, % 6,72k estrategia zirkularreko proiektu bat diruz laguntzeko balioko duela, eta, azkenik, gainerako % 20,00 aukera zirkularrak identifikatzeko bi proiektu diruz laguntzeko izango dela. Proiektuen katalizatzaile gisa jarduten duten klusterrek (eta, beraz, inplikaturako sektoreek) askotariko industria-sektoreak hartzen dituzte: Makina Erreminta, Urtzaileak, Ingurumena, Aeronautika, Kimika, Zura, Eraikuntza.

2022ko urriaren 13ko Aginduaren arabera, 2022ko deialdirako aurrekontu-zuzkidura 1.500.000 eurokoa izan zen. Emandako 22 dirulaguntzei dagokien inbertsio garbiaren zenbateko osoa 2.485.789,93 eurokoa da (emandako laguntzaren ondoriozko inbertsioa).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazleak	Aurreikuspena	Emaitzak
Enpresek eta/edo klusterrek/erakundeek egindako inbertsio garbia	--	2.485.789,93 €
Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea	--	94.065 tCO ₂ eq/urtean
Hondakinen isurketa murriztea	--	132.357 t/urtean
Materialak aurrezte	--	138.561 t/urtean
Lanpostuak sortzea	--	91
Hainbat sektoretako enpresei transferitzeko aukera	--	113 enpresa